

txintxarri



TXINTXARRI

Herrian hazi eta hezteko

Matrikulazio festa aurrera eramán dute Sasoeta-Zumaburu eta Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeek / 6

Abiatu dute aurtengo denboraldia

Hasi du aurtengo sagardotegi denboraldia Otegi sagardotegiak. Lasto koloreko edaria ekoitzi dute aurtén / 2

Hilaren 5ean irekiko dute Emakumearen Zentroko ikastaroetan nahiz Jabetze Eskolan izena emateko epea / 3

Euskal presoen aldeko eskubideak aldarrikatzen segitzen du Sarek, Azken Ostiralean / 4

Adiskidetasunaz eta botere harremanez jardun dira 'Erik eta Win' antzezlanean, kultur etxean / 5

Euskal Inauteriek girotuko dute Lasarte-Oria; herritarrak bertan parte hartzera deitu dituzte / 7

Lasarte-Oriako atletek domina uzta oparoa lortu dute Gipuzkoako txapelketan / 10

LOKE elkarteko gimnastek denboraldiari ekingo diote hilaren 3 eta 4ko asteburuan / 12

Merkealdia

2mó 89€

lehen 99€

erreflexuen aurkako betaurreko **graduatuak**

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

R.P.S. 91/20



MULTIÓPTICAS

943 37 74 55
Kale Nagusia, 15. LASARTE-ORIA



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiópticas.com   



40.000 litro sagardo bidlu dituzte Otegiiko arduradunek sagardotegian dituzten kupleetan. TXINTXARRI

Lasto koloreko sagardoa, aurtengoa, Otegin

Sagardotegi denboraldia abiatu du Otegi sagardotegiak, berriki, urtarrilaren 27an. Urtero bezala, lehen asteburua "lasaia" izan dela nabarmendu dute bertako arduradunek, baina datozen asteburuetarako erreserbak egin eta egin ari dira bezeroak

Txintxarri

Ekin dio aurtengo sagardo denboraldiari Lasarte-Oriako Otegi sagardotegiak. Otsail hasieran abiatu ohi dute sagardotegi sasoia normalean, baina, aurten, "bezero batzuekin zuten konpromisoagatik" erabaki duten inoiz baino lehenago martxan jartzea. Urtarrilaren 27an ireki zituen atean, eta lehen asteburuaz galdetuta, espero bezala, "lasaia" izan dela azpimarratu dute sagardotegiko arduradunek: "Orokorrean, hala izaten dira lehenengo asteburuak".

Halere, giroa eta bezeroak ez dira faltako Otegin denboraldi honetan ere; jakinarazi dute deiak jaso eta jaso ari direla, eta, adibidez, larunbat eguerdiak betetzen ari direla dagoeneko. Hori izaten da sagardotegi zale gazteen egunik kuttunena: "Astean zehar, apenas etortzen da inor; guk eskaintzen dugu aukera hori ere, etor daitezke aste barruan, beti ere gutxienez zortzi laguneko taldea bada, eta,

aurrez erreserba eginda". Nabarmendu du, baita ere, "edadeko jendea" garai batean baino gutxiago biltzen dela sagardotegian egun: "Lehen, garai batean, lantokitik irten eta etortzen ziren mokadu bat egitera; orain, hori ez da gertatzen, galdu egin da. Orokorrean gazteak etortzen dira sagardotegira". Igandetan, aldiz, familiak batzen dira sagardotegian.

Urteroko bezeroak ditu herriko sagardotegiak, "urtez urte hutsik egiten ez dutenak", baina denboraldiz denboraldi etortzen zaizkie bezero berriak ere. Azken horien inguruan aipatu du, normalean Hernani eta Astigarrako sagardotegietara jotzen dutela, eta horietan lekuri topatzen ez

DENBORALDI HONETARAKO 40.000 LITRO SAGARDO KUPELARATU DITUZTE OTEGIN

gutenean jartzen direla inguruko herrietakoekin harremanetan. "Gogotsu" agertu dira hasi berri den denboraldiari aurre egiteko, "betidanik joaten zaizkien bezeroekin elkartzeko ilusioz; haiek ere gu noiz agertuko zain egoten dira".

Horiei guztiei, sagardotegi menua eskainiko diete; bakailoa frijituta, bakailao tortilla, txuleta eta gazta irasagarrarekin, baina barazkijaleentzat eta beganoentzat ere izango da aukerarik. Hori, nola ez, sagardoak lagunduta dastatu ahalko dute denek ala denek, eta aurtengo edariaren inguruan galdetuta, kontaktu dute "lasto kolorekoa" dela. 40.000 litro batu ditu Otegi sagardotegiak guztira, hori guztia "inguruko sagarrekin" egin. Horren harira, gertakizun "xelebre" baten berri ere eman diote TXINTXARRI-ko kazetariari: "Orain, dagoeneko, sagar arborek ale txikiak dituzte. Eguraldiaren eraginez gertatzen ari da hori; inoiz ikusi gabekoa. Pentsa, sagarrondoak loratzen



Irudi honetan, Otegi sagardotegiko bakailao tortilla bat. TXINTXARRI

"Bildua eta urtsua"

Bakailao tortilla on bat nola egin daitekeen galdetu dio TXINTXARRI aldizkariak Otegi sagardotegiko arduraduneri, eta honako azalpen hauek eman dizkiote. Bakailoa apurtuta erosten dute, eta hori epeldu egiten dute lehen pausoa. Hori eginda, tipula eta perrexila txikitu eta piper berde apur bat ere bai, "kolore pixka bat emateko". Hori dena su txikian kozinatzen dute, eta nahasketa prest uzten dute tortillak egin behar dituztenerako.

Une hori iristen denean, bi burruntzali bete eta erdi nahasten dituzte zortzi arrautzarekin (lau lagunentzako kalkulua litzateke hori). Sutan, zartaginera bota duten nahasketa tartetxo batez ukitu gabe edukitzen dute, poliki-poliki egiten joan dadin, eta gero, bazterretik biltzen joaten dira. Halako batean, buelta eman eta berehala zerbitzatzen dute, urtsua gera dadin. Horiek baitira sagardotegiko arduradunentzat gauzarik garrantzitsuenak; bildua eta urtsua zerbitzatzea.

dira maiatzean, eta sagarrak uztaile eta abuztua bitarte irteten dira, irailan jasotzeko".

Euskal Herriko hiri, herri eta txoko askotako bezeroak jasotzen ditu urtero Otegi, baina, Espai-

niako hainbat lekuetakoak ere bai; aurten, adibidez, Burgosetik autobus bat etorriko dela kontaktu du. Denak ala denak hartzeko prest, gogoz daude sagardotegiko arduradunak.

Ikastaroetan izena emateko epea, irekitzear

Hilaren 5etik 15era inskribatu ahalko dute herritarrek Emakumearen Zentroko jardueretan edota Jabetze Eskolan. Toki baino eskaera gehiago egitekotan, udalak jakinarazi du zozketa bat egingo duela 16an, partaideak nortzuk izango diren erabakitzeko

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak jakinarazi du ohiko ikastaro eta Jabetze Eskolaren barruko saio ugari prestatu dituela datozen lau hilabeteetarako, doakoak batzuk eta ordainpekoak besteak, "prezio oso onean" daudenak. Horietan izena emateko epea datorren astelehenean irekiko du, hilak 5, eta 15era arte luzatuko. Tramite hori aurrez aurre egin nahi dutenek Emakumearen Zentrorra (Donostia etorbidea, 6) joan beharko dute, astegunetan, 09:30etik 13:00etara edota 15:30etik 19:30era. Beste aukera bat sarean inskribatzea da, www.lasarte-oria.eus webgunean. Toki baino eskaera gehiago jasotzekotan, hilaren 16an egingo duten zozketa baten bidez erabakiko dute nortzuk parte hartuko duten jarduera bakoitzean.

Jabetze Eskola iaz jarri zuen martxan udalak eta bertako Berdintasun teknikari Maite Iglesiasen hitzetan, "gero eta emakume gehiagok" parte hartzen dute. Ekimen horren "ardatz nagusia" herritarren ahalduntzea sustatzea da, ikuspegi feminista kontuan izanda.

Behin izen ematea itxita, hilaren 26an hasi eta ekainaren 21ean bukatuko dira ikastaro guztiak (ikus ondoko taula).



Udal ordezkariak, ikastaroen berri ematen. TXINTXARRI

Otsailetik ekainera arteko eskaintza

Ohiko ikastaroak

- Gorputza entzuten eta sentitzen ikasiz (doan)
- Jantzi konponketa eta patrioiak (doan)
- Bitxien tailerra (doan)
- Zaindu zure gorputza (doan)
- Kantua (doan)
- Batuka (doan)
- Yoga (38,25 euro)
- Hipopresiboak (44,55 euro)
- Eskulanak (51 euro)

Jabetze Eskola

- Eskola feminista (doan).
- Emakume migratuen topagunea (doan)
- Zugandik. Sormen artistiko eta terapeutikoko argazki tailerra (doan)
- Indarkeria gabeko guneak (doan)
- Empoder-arte (doan)
- Biodantza (38,25 euro)
- Antzerkia (51 euro)



NEURE KABUZ
LIERNI REKONDO

Biharamuneko koplak

Bezperako egunek epikotasuna ematen diote berezitat jotzen dugun datari, biharamunak ordea, ez du ezer apartekorik: ajea batzuetan, ahanztura besteetan. Horren esanguratsutzat hartu duguna pasata dago dagoeneko, momentuko zirrara hartzen dugu aintzat, besterik ez.

Halako zerbait gertatzen da erasoekin. Argi ditugu aldarriak, diskurtsoak eta esan beharrekoak; argi ditugu hitz gakoak: saretzea, militantzia, borroka eta politika feministak; argi dugu martxoaren zortzian egitarau aberats bat antolatzeke beharra. Baina txoznagunean jazotako eraso gaitzesteko kontzentrara joaten gara eta elkarretaratzearen osteko tragoek paranda giroa pizten dute herriro. Beste emakume bat erahil dutela irakurtzen dugu egunkarian eta estatistika bat irudikatzen dugu gure burutan. Hil berri duten Agedak ez baitu aurpegirik guretzat. Eta hala jarraitzen dugu, bezperako kopletan iltzaturik, biharamunaren ahanzturapean.

Santa Ageda bezpera ospatuko dugu aurten ere, gure lurrek dar-dar egingo dute makil eta kantuen baldintzan. Udaberria iragartzeko ekintza omen da, lurra esnatu eta loratu dadin eskatzeko modua. Ageda gurtzeko eguna, Sizilian jaiotako birjina eta martiria. Quicianok berarekin ezkon zedin nahi izan zuen, baina Aguedak uko egin zion kristaua izateagatik eta hori izan zen bere martirioaren kausa: mutilazioa ezezko baten truke.

Boterea ez da horrenbeste aldatu azken mendeetan. Ezezko batek, ideia kontrajarri batek ala erdigunera atera nahiak zigorra dakar sarri, ahots kordak mutilatzen dizkigute batzutan, askatasuna bestetan. Eraso bat dagoen bakoitzean, gure diskurtso feminista okatzen dugu inertziaz, baina ez dakit kontziente garen, emakume bat erasotzen duten bakoitzeko gorputz atal bat moztuko baligute aspaldian desagertuak geundekela.

Nik lurra kolpatzeko gogoia izaten dut sarri, amorruez, minez. Jakin nahi nuke zergatik lokartzen garen biharamunetan. Ahanzturatik atera gaitzela opa diot gizaritari. Oroimenetik, minetik, gogotik eta batez ere beharretik aritu gaitzela, biharamuna kontzienteki bizi dezagun, gure ideiak, gorputzak eta kontzientziak mutilatu ez ditzaten. Bi mila urte pasa dira Agedari bularrak moztu zizkietenetik, eta uste dut lurra ez dela esnatzeko daukagun gauza bakarra.

txintxarri

Lasarte-Oriako etxe eta komertzioetan,
doan eta euskaraz

**Zure iragarkia jarri nahi duzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!**

Deskontu bereziak herrikoentzat!

ESKATU TARIFAK: publizitatea@ttakun.eus • 646 82 44 66

Bidea "erraza" izango ez den arren, "aurrera"

Urtarrila amaitzean, urteko lehen Azken Ostirala aurrera eraman dute lasarteoriatarrek. Lasarte-Oriako Sarek deituta, 70 bat lagunek bat egin dute aldarrikapen ekintzarekin. Elizatze plazatik abiatuta, hilabeteko irakurketa partekatu dute gero Okendon

Txintxarri

Hilaren 13an Bilbon egindako manifestazio jendetsua gogoratu zuten lehenik urte berriko aurreneko Azken Ostiralean, urtarrilaren 26an. Gatazka "behin betiko konpontzeko" milaka "giltza" bildu zituen mobilizazioa "bultzada garrantzitsua izan da euskal preso, iheslari eta deportatuen etxeratzea eragozten jarraitzen duten salbuespen juridikoei amaiera emateko". Arrakasta horrek aurrera egiteko "konfiantza eta bermea" eman die, "gatazkaren konponbidearen oinarriak" jasotzen dituen *Konponbiderako giltzak* manifestuarekiko atxikimenduak lortzen jarraitzeko.

Hala ere, bidea ez dela "erraza" izango nabarmendu zuten, "presoen eskubideen aurkako autoak emanez" edo "egozpen eta sumario berriak aktibatuz" ari baitira. Horrez gain, kriminalizazio saiakerak ere salatu zituzten, Porrotx pailazoaren edota Itziar Ituño aktorearen aurkakoak kasu, "presoen eskubideak defendatze hutsagatik".

"Oztopo lasterketa" deritzotenen beste lagin bat, Beatrice Molle eta Txetx Etcheverry "bakearen artisauen" aurkakoak. ETaren armagabetze prozesuan parte hartu zuten armak entre-



Okendo plazan bukatu zuten manifestazioa. TXINTXARRI

gatzen eta Parisko Zigor Auzitegian laster epaituko dituzte. "Bake Bidean-ekin batera, epaiketa honen bidegabekeria salatu dugu datozen datetan, eta bakea eta konponbiderako bidea sustatzen jarraituko dugu".

Bestalde, urtarrilean hil ziren Jose Ramon Foruria eta Kandi Sagarzazu preso ohiak gogoratu zituzten. Lehena, gaixotasun larri baten ondorioz hil zen urte hasieran. 70 urtetik gora zituen markinarra baldintzapeko askatasunean zegoen urte luzez erbesteratuta eta espetxeratuta

egon ondoren. Egun batzuk geroago, Sagarzazu hil zen. 48 urteko donostiarra 2015ean aske utzi zuten hamabi urteko espetxealdia igarota.

Lasarte-Oriako Sare taldeko kideek "lanean jarraitzera" animatu zituzten bertaratutakoak, "kalean eta ahal den eremu guztietan", ahalik eta erakunde politiko nahiz sozial gehienek *Konponbiderako giltzak* dinamikarekin bat egin dezaten, horrek "presoak ahalik eta azkarren etxeratzeko bidean aurrera egitea" ahalbidetuko duelako.

Lan integrazioaren aldeko urratsak egiten segiko dute

Pauso Berriak egitasmoaren sustatzaileekin lankidetzak akordioa berritu du Urbil merkataritza guneak

Txintxarri

Atzegi eta Gureak eragileek kudeatzen duten Pauso Berriak programaren helburu nagusia da desgaitasun intelektuala duten pertsonen laguntza lan merkataritza integratzen. Horren adibi-

de da Oscar Guinaldo herritarra, Urbilen praktikak egin eta hamalau urtera zentro horretako giza taldearen "funtsezko zutabe" bihurtu dena, "garbiketa eta laguntza lanetan egindako ekarpen baliotsuagatik".

Elkarte horietako ordezkari Bakartxo Bandres eta Susana Pastorrek lankidetzak hitzarmenaren garrantzia nabarmendu dute, horren bidez Oscar bezalako pertsonen haien garapen sozional eta pertsonalerako aukerak eman diezazkietelako. Urbileko kudeatzaile Leyre Lobatok, bestalde, azpimarratu du lan ingurune "egokitu eta inklusiboak" sortzen jarraitzeko konpromisoari eutsiko diola merkataritza guneak, langile guztiak "baloratuta" senti daitezten.



TXINTXARRI

Atsobakarretik hasi dira

Lasarte-Oriako PSE-EEko ordezkariak Atsobakar auzoan izan dira berriki: Auzoz auzo programari berrikin eta karpa gorria jarri dute Muga ibilbideko plazetako batean. Hara bertaratu diren herritarrek euren iradokizunak edota kezak adierazteko aukera izan dute. Aurreratu dutenez, hilean behin aurrera eramango dute ekimena eta herriko auzo guztietara joateko asmoa dute.



SAHARAREKIN ELKARTASUNA LASARTE-ORIA

Elkartasun kaxak Saharara

Sahararekin Elkartasuna Lasarte-Oria taldeak janari bilketa solidarioa burutu du Kalbario bidean dagoen BM saltokiaren atarian. Lau orduko ekimenaren emaitza esanguratsua izan da: bederatzi kaxa lekale; zortzi, pasta; zazpi, arroz; bina olio, atun eta sardina; eta beste hiru kaxa konpresekin bete dituzte.



Oscar Guinaldok (eskuinean, behean) hamalau urte daramatza Urbilen lanean. URBIL



TXINTXARRI

Adiskidetasunaz eta botere harremanez jardun dira

Buhameak taldeak *Erik eta Win* ikuskizuna ekarri zuen urtarrilaren 27an Manuel Lekuona Kultur Etxera. Bina bertsolarik eta musikarik osatutako taldeko bi kide, Unai Muñoa eta Aitor Atxega, lasarteoriarrak badira ere, lau urteko ibilbidearen ondoren egin zuten emanaldia herrian. Areto erdia bete zuten ikus-entzuleek musika, antzerkia, bertsolaritza edota poesiaren bidez, Muñoak eta Ander Lizarralde bertsolariek egindako gogoetaren berri izan zuten. 1990eko Gipuzkoako Bertso Txapelketan elkar ezagutu zuten eta binakako ariketa bat egiterakoan,

Muñoak ez zion kasurik egin kideak proposatutako doinuari. Oiertzuarrak ez zuten erabilitakoa ezagutzen, baina, hala ere, lagun egin ziren. Harreman horretan, ordea, botereak ere badu zeresanik eta horri buruz hausnartu zuten: batek nahiago du meneko izan, besteak, gailendu; batek, eskuzabal izan, besteak, horri probetxua atera; batek, koldar jokatu, besteak, ausart plantak egin... Atxegak eta Imanol Kamiok jotako musikak lagunduta, bertsotan eta kantuan, kontakizuna josi zuten. Zuzendari artistikoa Asier Sota izan zen.



TXINTXARRI

Plaza bete doinu eta dantza

Ttakun Kultur Elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak antolatuta, Plaza Dantza egitasmoa lagunek aurtengo lehen saioa egin zuten urtarrilaren 28an, 12:00etatik 14:00etara bitartean. Negu bete izan arren, udaberriko giroarekin dantza egin zuten, eguzkipean. Ohi bezala, biribilean jarrita, banaka, binaka edota taldean aritu ziren, doinuaren arabera.

ORIENTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

DBH-ko IKASLEEN ONARPENA 24-25

OTSAILAREN 7tik 23ra



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943-89 94 94

ATE IREKIAK

otsailaren 7an (17:30-18:30)
Landaberri eraikinean



www.oriarte.eus



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943-89 94 92





Matrikulazio festara bertaratu zirenek primerako goiza igaro zuten, besteak beste, dantzatzen. TXINTXARRI

Herrian hazi eta herrian heztearen garrantziaz

Haur eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio kanpainaren barruan, Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeek festa koloretsu bat egin dute, giro ederrean, Lasarte-Orian eta eskola publikoan ikastearen alde egitea sustatu asmoz

Txintxarri

Koloretsu, anitz eta askotariko marrazkiak egin zituzten herriko bi ikastetxetako ikasleek ikasleku eta jolasleku duten hori nola ikusten duten islatzeko. Horieta hamarnaka zintzilikatu zituzten udaletxe azpiko arkupeetan eta Okendo plazako eszenarioaren beheko aldean.

Porrotx eta Marimotots pailazoen emanaldiaren aurretik, oihal bat jarri zuten ikuskizuna haren gainean eserita ikusi nahi zutenentzat. Sudurgorriak agertu zirenerako erabat beteta zegoen, eta haien inguruan zutik zeuden dozenaka lagun.

Zorionak Marimotots ikuskizunaren emanaldia egin zuten bi pailazoez. Marimototsen amaren heriotza abiapuntu izan arren, barreak eta kantu alaiak izan ziren nagusi. Duela hiru urte landatutako intxaurrendoren fruituak ama gogorazteaz gain, Porrotx zirikatze

ere baliatu zuen betaurrekodu-nak. Txantxak, jolasak eta abestiak josiz ordubetez aritu ziren, elkar babesteak duen garrantzia erakutsiz. Ideia hori herriko eskolekin lotu zuen ileuridinak eta Landaberri edo Sasoeta-Zumaburu zergatik aukeratu zuten azalduko zuten sei familien lehena oholtzara igotzera gonbidatu zuen (ondoko zatiduran jaso ditugu haur eta guraso horien hitzak).

Adierazpenak amaituta, ohol-tza gainean zeuden familiek eta pailazoez elkarrekin dantzatu eta abestu zuten *Agur bat lagun maite* kanta. Plazan zeudenek ere gauza bera egin zuten. Amaitzeko, bi talde argazki egin zituzten. Lehena, hitz egin dute-

HILAREN 7TIK 23RA ARTEKOA IZANGO DA AURTENGO MATRIKULAZIO KANPAINA

nekin, bigarrena, Okendon bildutakoekin. Eta hori nahikoa ez balitz, nahi izan zuten guztiak aukera izan zuten sudurgorriekin erretratua egiteko.

Ate irekiak ikastetxeetan

Ikastetxeetako matrikulazio kanpaina hilaren 7tik 23ra artekoa izango da, bi egun horiek barne. Horren aurretik, herriko bi hezkuntza zentroek ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte, izena emateko interesa dutenek ikastetxeen instalazioak eta programa ezagutu ditzaten.

Sasoeta-Zumaburuok bihar egingo dute saioa, hilak 3, 11:00etatik 13:00etara, Zumaburu-egoitzan. Horrez gain, bilera informatibo bat aurrera eramango dute 7an, 17:00etan, ate irekien toki berean. Informazio gehiago nahi dutenek 943-36 12 26 telefono zenbakira deitu behar dute. Garaikoe-txea-Landaberrikoek, berriz, ate irekien jardunaldia 5ean gauzatu dute, 17:00etatik 19:30era,

Ume eta gurasoen hitzak



Angela eta Lucia. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburu HH: Angela eta Lucia

"Bi alabak Zumaburu ikastolara doaz. Aita eta biok oso gustura gaude ikastolarekin, gertu dago gure etxetik. Irakaslegoaren lana izugarria izan da, atentzioa pertsonalizatuta dago bai alde akademikoan bai emozionalean".



Nerea, Iker, Unax eta Udane. TXINTXARRI

Landaberri LH: Nerea, Iker, Unax eta Udane

"Guk [Nerea eta Iker] erabaki genuen Landaberrira eramatea umeak. Herriko eskola batera joatea nahi genuen, herriko jendearekin ibiltzeko. Oso gustura gaude haurrak eta gu ere bai".



Leire, Ainhoa eta Gorka. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburu HH: Leire, Ainhoa eta Gorka

Honako mezu hau zabaldu zuen Gorkak, Leire amarekin batera: "Herrian hazi eta herrian hezi". Semeak nahiz Ainhoa alabak esan zuten "oso pozik" ari direla Sasoetan ikasten.



Itsaso, Elaia eta Udane. TXINTXARRI

Landaberri LH: Itsaso, Elaia eta Udane

"Oso argi genuen gure alabek herrian ikasiko zutela, nahiz eta gu berez herrikoak ez garen. Publikoa ere, oso argi. Eta errealtatean aniztasun handia dago publikoetan. Herrian hazi eta herrian hezi!"



Oihana, Maite eta Amaia. TXINTXARRI

Sasoeta-Zumaburu LH: Oihana, Maite eta Amaia

Hauze esan zuen Oihana amak: "Oso pozik gaude Sasoeta-Zumabururen, etxetik gertu dago eskola eta txikia denez irakasleekin harreman estua izaten dugu. Primeran gaude, egia esan".



Alba, Alaia, Ainhoa eta Maddi. TXINTXARRI

Landaberri HH eta LH: Alba, Alaia, Ainhoa eta Maddi

Ainhoa amak garrantzi berezia eman dio ikastetxearen ezaugarri bati: "Oso pozik nago: eskola inklusiboa da eta ume guztiak aukera berdinak dituzte". Umeak "pozik" dabilta ikastolan.

eta, informazioa emateko bilkura, hurrengo egunean, 17:30etik aurrera. Antolatzaileek ohartarazi dute "ezinbestekoa" dela

izena ematea. Tramite hori egin eta jardueraz gehiago jakiteko: www.landaberri.eus edota 943-37 06 62 telefonoa.

Badatoz Txantxoak Lasarte-Orira

Euskal Inauteriak hartuko du Lasarte-Oria larunbat honetan, hilak 3. Lurra neguko lozorrotik esnatu, eta udaberriari ongietorria ematera etorriko dira Txantxoak, Hartza eta bestelako mozorroak

Txintxarri

Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak antolatu dute egitaraua, elkarlanean, erakundeak eragilearekin duen Jaietako hitzarmenaren barruan. 17:30ean emango diote hasiera festari, Hipodromoko zubian; leku hori, noski, berriaz aukeratu dute antolatzaileek. Herriaren mugen erakusle, "herria ona eta bertakoa ez dena gaiztoa" dela irudikatzeke abiatuko dira bertatik. 17:45ean Hipodromo etorbidea hartu, eta kalejira egingo dute herrian barrena. Tajamar biribilgunera iritsi, eta handik, Ilargi taberna parera iritsita egingo dute lehen geldialdian. Dantza saio labur bat egin, eta Arkupe taberna ondoko biribilgunera joango dira parte hartzaileak. Bertan, bigarren geldialdia egingo dutela baliatuz, dantzan arituko dira, eta, handik, itzulerako bidea hartuko dute;

Okendo plazan amaituko da desfilea

Itun ordaina eta dantza gehiago

Ohi bezala, senidetzea egingo dute, gero udaberriari "gaitzik ez, eta uzta ona" izatearen truke. 18:15ean hasiko da hori, eta, bertaratzen direnek entzungai bat ere entzun ahalko dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Dantzari ekingo diote berriro, konturatuko diren arte baten batek sinatutako hitzarmena ez duela bete: Kaxkamalok. Hortaz, zigor gisa, sutan erreko dute, 19:30ak aldera. Hori egin aurretik, bigarren entzungai bat aineratuko dute, eta, erretzearekin batera dantza egingo dute parte hartzaile guztiek, elkarrekin. ileek herritar guztiak animatu dituzte txantxo jantzi eta ospakizunean parte hartzera. Eguraldi txarra egitekotan, ospakizuna Oriarte Landaberri instituturara eramango dute.



Ikastaroko zenbait partaide, materiala josi edota mozten. TXINTXARRI

Jantzi dotoreak egin dituzte

Zakuak eta koloretako oihalak erabilita, euskal inauterietan erabiltzeko moduko txantxo jantzi dotoreak egin dituzte horretarako ikastaroan parte hartu duten herritarrek, Ione Artola irakaslearen jarraibideak adi entzun eta gero.



Hipodromo etorbideko zubitik abiatuko da Txantxoaren kalejira. TXINTXARRI


**EUSKAL
INAUTERIAK**
OTSAILAK 3 • LASARTE-ORIA

17:30 | HASIERA
(Hipodromoko zubian elkartu eta kalejira herritik barrena)

18:15 | ITUN-ORDAINA eta DANTZAK
(Okendo plazan)

19:30 | KAXKAMALO ERRE eta DANTZAK
(Okendo plazan)

*Eguraldi txarra eginez gero,
Oriarte-Landaberriko estalkian ospatuko da




Zein eskiatzaile iritsiko da helmugara?

Labirintoa

ALdea dago!

Bi zamaltzain hauek ez dira berdin-berdinak. Aurki itzazu bien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



Zati engainagarriak

Zortzi zatitxo hauetatik lau iruditik hartuta daude, eta beste laurak engainagarriak dira, hau da, antza baduten arren, ez dira guztiz berdinak. Bereiz itzazu.



Itzala

Zein da patinatzailearen itzal zuzena?



Osatu lauki zuriak, domino zatiak zentzua izan dezan.

DOMINOAN

Inauteriak



Ezkerretik eskuinera, Redondo, Furundarena, Almagro, Garcia eta Presa herritarrak, podiumetan. G. REDONDO/OSTADAR ATLETISMOA/J. PRESA

Lasarte-Oriako atletak domina uzta lortu dute

Maila absolutuko Gipuzkoako txapelketa lehiatu da urtarrilaren 27an eta 28an Donostian. Herriko hainbat atletak parte hartu dute eta horietako sei lehen hiru sailkatuen artean izan dira; hiru urrezko, bi zilarrezko eta brontzezko domina bat jantzi dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako atletak ederki lehiatu dira pistako Gipuzkoako txapelketan. Urtarrilaren 27an eta 28an, bi jardunaldi ezberdinetan lurraldeko onenen aurka jardun ziren Donostiako Antonio Elortza belodromoan. Guztira sei domina, marka pertsonal berriak eta Espainiako txapel-

ketarako gutxieneko markak batu zituzten.

Lehen arratsaldean Ostadar SKTko Eider Redondo gazteak eman zuen ezustekoa. 13 urterekin maila absolutuko luzera jauziko Gipuzkoako txapeldun berria da gaztea. 5,45 metroko jauziarekin bere marka onena berdindu eta urrezko domina

eraman zuen lasarteoriatarrek. Gainera, taldeko arduradunek nabarmendu modura, bigarren aldia da 16 urtez azpiko Espainiako txapelketako gutxieneko marka egiten duena.

Pisuan ere izan zen herritarrik podiumean. Oihana Igarrirek zilarrezko domina eskuratu zuen 10,54 metroko jaurtiketarekin.

60 metroko neskek lasterketak ere izan ziren egun horretan. Taldekide Iraia Alkorta, Iugatz Almagro, Dunixe Muñoz eta Atletico San Sebastianeko Nerea Eugi herritarrak parte hartu zuten kanporaketetan. Alkorta izan zen finalera iristen bakarra 07,83 eginez. Finalean laugarren sailkatu zen, baina ezin izan zuen denbora jaitsi. Hala ere, kanporaketan egindako markari esker, 18 urtez azpiko Espainiako txapelketarako txartela eskuratu du talde urdin-beltze-ko kideak.

Igande goizean bigarren jardunaldian ere fin ibili ziren herriko atletak.

Jauzi hirukoitzean, esate baterako, Ostadar SKTko hiru kide izan ziren lehenen artean. Naroa Furundarenak (12,64 m.) eta Oinatz Almagrok (12,67 m.) urrezko domina jantzi zuten eta June Garciak, aldiz, podiuma osatu zuen brontzea lortuaz (10,94 m.).

Azken domina 3.000 m. iraupen proban lortu zuen Aloña Mendi taldeko Jon Presa herritarrak, zilarrezkoa. Lehen kilometroan probako buru egon zen arren, Mikel Aguirrebeñak erreleboa egin zion bigarrenean eta hortik aurrera Joseba Larzabal nagusitu zen. Presak bere marka pertsonala (08.46,55) onduz, bigarren postua lortu zuen.

Adin txikikoak

Hilaren 3an, aukera berria izango dute herriko taldeko atletak

Lasarte-Oriako lasterkariak ez dute huts egin

Talaia Mendi Krosa, Idiazabalgo krosa edo Etxera krosa errepide zein mendian izan dira lehiatu lasarteoriatarrek zein herriko taldeetako lasterkariak urtarrilaren 28an.

Donostian antolatu zen Talaia Mendia krosean parte hartu zuen talderik handienak. Herrian bizi den Ander Urkizu lehen postuetan izan zen; helmugan 01.17.27 eginez seigarren sailkatu zen.

Idiazabalgo krosean ere Lasarte-Oriako ordezkari talde bat izan zen. Horien artean azkarrena Gorka Gil (35.59) izan zen.

Eta Gernikako Etxera Trail proban ere izan zen herritarrik. Ander Otaegi (01.31.43) izan zen horien artean lehena helmuga igarotzen.

euren garaipen poltsa handitze-ko. 16 eta 18 urtez azpiko pista-ko Gipuzkoako txapelketa jokatuko da Donostian eta Ostadarreko hainbat kide izango dira bertan parte hartzen.

Ostadar Boleibol taldeak puntuz puntu ligan aurrera doaz

Jubenil mailan izan ezik, senior, infantil A eta Euskal Liga taldeak garaile izan dira ligako jardunaldian

Txintxarri

Ostadar Boleibola saileko taldeek denetariko emaitzak izan zituzten urtarrilaren 27-28 asteburuan. Jubenil mailako taldeak ez zuen egun ona izan eta Zarauzko Aidedean 0-3 gailendu zen. Liga hasiera txarra izan du taldeak eta entrenatzaileek egoerari itzulia emateko lanean ari direla aipatu digute.

Euskal Ligako taldeak, aldiz, garaipen borrokatua erdietsi zuen; Bera Bera Bultz izan zuen aurkari. Lehen setetik neurketa lehiatua izango zela ikusi zen.



Jubenilen neurketako irudia. TXINTXARRI

Etxekoek ongi eutsi zieten donostiarren erasoei eta 25-21 gailendu ziren. Donostiarrek zailtasun batzuekin eraman zituzten hurrengo biak; 20-25 eta 18-25.

Baina etxekoek ez zuten amore eman eta ongi lan eginez laugarren seta eskuratu zuten; 25-15. Bosgarrenean ederki moldatu ziren sakearekin urdin-beltzak eta 15-5koaren amaitu zen norgegiagoka.

Ligako buru

Gipuzkoako txapelketako hirugarren jardunaldian, senior taldeak Hernani garaitu eta sailkapeneko lehen postuan da. Cristiana Hardman-ek zuzentzen duen taldeak lan ederra egin zuen Hernaniko kiroldegian jokatu zen partidaren eta 0-3 (21-25, 18-25 eta 23-25) irabazi zuen.

Eta ez da bere ligako buru dagoen Ostadarreko talde bakarra. Infantil A taldeak Aldapeta Maria Berdeak 1-3 (11-25, 11-25, 25-23 eta 19-25) gairitu eta postu horretan kokatu da.



LOKE JUDO

Bi domina, Gipuzkoako lehiatu

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) judoek junior mailako Gipuzkoako txapelketari egin zioten aurre urtarrilaren 28an, Urnietan. Gipuzkoa osoko kirolariekin egin zuten borrokan LOKEko gazteek eta bi kide podiumera igo ziren. Ekain Luisek (eskuinetik hirugarrena) 100 kilo baino gehiagoko mailan zilarrezko domina lortu zuen; Unai Guisadok (ezkeretik hirugarrena), aldiz, 66 kilo azpiko mailako hirugarren postua eskuratu zuen bigarren aukeran bere borroka irabaziz. Hilaren 4an, Portugaleten izango dira biak Ekhi De La Cruzekin batera maila horretako Euskadiko txapelketa lehiatzen.

Txapela, dominak eta markak, igerilarien poltsan

Infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako txapelketa jokatu da Agorrosin kiroldegian, Bergaran. Buruntzaldea IKTko kideak bikain lehiatu dira eta proba ezberdinetako zein sailkapen bateratuko podiumetara igo dira egindako markei esker

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko igerilariak denboraldiko lehen hitzordu garrantzitsuari egin zioten aurre urtarrileko azken asteburuan, infantil, junior eta absolutu mailako Gipuzkoako Neguko Txapelketa. Hamalau taldekide izan ziren lehiak bakarka edo erreleboetan eta emaitza paregabeak lortu zituzten. Guztira 25 marka pertsonal ondu eta 23 domina batu (ikus ondoko koadroa) zituzten igeriketa taldeko kideak.

Gainera, bakarkako hiru proba onenen FINA puntuak gehituta, igeriketa taldeko bi kide podium nagusira igo ziren; Ga-



Gipuzkoako txapelketa parte hartu zuten igerilarietako batzuk. BURUNTZALDEA IKT

razi Etxeberria Gipuzkoako Txapeldun izan zen junior mailan eta infantilen kategorian, Iñaki Garcia txapeldunorde izan zen.

Eta ondutako markei esker Gipuzkoa zein Euskal Herriko Txapelketetan proba gehiagotan parte hartzeko aukera eskuratu dute Mario Amantegi, Iker Go-

Urrezko domina

- **Oihan Matute** 100 m. lau estilo, infantil maila.
- **Iñaki Garcia** 50 m., 100 m. eta 200 m. bizkar eta 100 m. libre, infantil maila.
- **Garazi Etxeberria** 50 m. eta 100 m. libre eta 100 m. lau estilo, junior maila.

Zilarrezko domina

- **Oihan Matute** 400 m. lau estilo, infantil maila.
- **Iker Gorostegui** 200 m. tximeleta, junior maila.
- **Garazi Etxeberria** 50 m. bizkar, junior maila.
- **June Lopez** 400 m. libre, junior maila.
- **Mutil infantilak** 4x200 m. libre erreleboa.
- **Mutil infantilak** 4x100 m. libre erreleboa.
- **Mutil infantilak** lau estiloetako 4x100 erreleboa.

Brontzezko domina

- **Mario Amantegi** 400 m. libre, infantil maila.
- **Miren Sarobe** 200 m. libre, junior maila.
- **Iker Gorostegui** 400 m. lau estilo, junior maila.
- **Garazi Etxeberria** 100 m. lau estilo eta 50 m. libre, absolutu maila.
- **June Lopez** 200 m. bizkar proba, junior maila.
- **Mutil absolutuak** 4x50 m. libre erreleboa.
- **Neska juniorrak** lau estiloetako 4x100 erreleboa.

rostegik eta Nora Miguelez taldekideek: Amantegik Euskal Herriko Udako Txapelketa 100 m. libre proban; Gorostegik lehiaketa bereko 50 m. tximele-

tan eta Euskal Herriko absolutu mailako 100 m. eta 200 m. tximeleta probetan; eta, Miguelezek, Gipuzkoako Udako Txapelketa 100 libre m. proban.

Junior Errendimendu taldeak, ezin fase berria garaipenarekin hasi

Carnicas San Marcial Hondarribia taldea gailendu da Gipuzkoako txapelketako lehen jardunaldian

Txintxarri

Ostadar SKTko Junior Errendimendu taldeak denboraldiko lehen fasea amaitu eta Gipuzkoako txapelketa murgildu da. Lehen neurketa Maialen Chourraut kiroldegian izan zen urtarilaren

26an. Aurkari ezaguna zuen Carnicas San Marcial Hondarribia; lehen fasean bi alditan neurtu zituzten indarrak eta bietan hondarribiarrek izan ziren nagusi. Beraz, partida zaila zuen aurretik talde urdin-beltzak.

Ondo hasi zen norgehiagoka. Bi taldeek indartsu ekin zioten erasoari eta saskiratzeak txandakatu hamalaua berdindu zuten partziala.

Neurketa berdindua zirudien arren, hondarribiarrek erritmoa aldatu eta neurketa hautsi zuten. Etxeko taldearen zonara erraz iristen ziren eta Andoni Alduncinen taldeak ezin izan zuen aurkariaren erauntsia geratu. Ondorioz, jaurtiketa pertsonalei zein hiruko saskiratzei esker alde ireki zuen Carnicas San Marcial



Juniorren neurketako irudia. TXINTXARRI

Hondarribiak, atsedenaldira 17-32 iritsiz.

Gainerako bi laurdenetan jokoak berdind jarraitu zuen. Etxekoak euren onena emanaz aurre egiten saiatu arren, azken emaitza 36-67 izan zen.

Erronka gogor eta aberasgarria du aurrean talde urdin-beltzak. Zilar mailako zein urte mailako bost talderi aurre egin beharko die fase berrian eta lehen biek egingo dute aurrera. Euren onena ematen saiatuko dira junior mailako jokalariek.




600 85 75 86

www.electricidadarregui.com

Etxeko sabairako argi berriak!

Lanpara zirkularrak | Intentsitate eta kolore erregulagarriak | Distira handiko LEDak

ILARGI MODELOA



MUNDUA MODELOA



ZURI-BELTZEKO MODELOAK

Material elektrikoa • Argiak • Etxetresna elektrikoak • TB/HI-FI • Instalazio elektrikoak

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21

LOKEko gimnastak tapizera aterako dira

LOKEko gimnastek txapelketen denboraldia hasiko dute hilaren 3an eta 4an. Azkenean iritsi da garaia eta hilabeteetan lantzen egon diren koreografiak erakutsiko dituzte bakarka zein taldean Amateur txapelketako lehen fasean baita benjamin topaketan ere

Txintzarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) Gimnastika ataleko ki-deak lehiaketetarako prest daude. Irailean hasi ziren lanean tresna eta elementu berriekin trebatzeko eta hilaren 3an eta 4an lan ezberdinak aurkezteko garaia iritsi da.

Lehenak tapizera ateratzen amateur mailako gimnastak izango dira, hilaren 3an. Master mailatik kadete C mailara Gipuzkoako talde ezberdinetako kirolariak Bergarako Labegaraiaeta kiroldegian batuko dira lehen fasea lehiatzeko.

Bi jardunaldi jokatu dira; goizean jubeniil, senior eta master mailako parte hartzaileak izango dira lanean eta arratsaldean, aldiz, kadeteak.



LOKE Gimnastika ataleko ikasturte amaierako erakustaldiko irudia. TXINTXARRI

LOKEk banaka zein taldean izango ditu ordezkariak lehiari (ikus azpiko koadroa) eta mailaren arabera uztai eta pilotekin duten trebetasuna erakutsiko dute.

Egun bat geroago, benjamin mailako txikien txanda izango da Oartzungo Elorsoro kiroldegian. Denboraldiko lehen topaketan Landaberri 1 eta 2 taldeek esku hutsik egingo dute lan.

LOKEko ordezkariak, lehen lehiaketetan

Amateur 1. fasea

- **Master A**
Paula Martinez - Uztai
- **Senior A**
Mirian Prieto - Uztai
- **Jubeniil A**
Saioa Boyero - Pilota
Erika Tejero - Pilota

- **Jubeniil B**
Aitana Molano - Pilota
LOKE - 3 uztai eta 2 pilota
- **Kadete A**
Maitane Sarmiento - Uztai
- **Kadete B**
Arhane Larrañaga - Uztai
LOKE - 5 pilota

- **Kadete C**
LOKE1 - 5 pilota
LOKE 2 - 5 pilota

Benjamin topaketa

- Landaberri 1
- Landaberri 2

Eguzki AFko harrobiko taldeek erronka ederra izan dute

Gazte, kadete eta infantil mailako taldeek aurkari indartsuekin neurtu dituzte indarrak ligan

Txintzarri

Areto Futbol zaletuek Eguzki AFren harrobiaz gozatu ahal izan zuten ligako jardunaldian. Gazte, kadete eta infantil mailako taldeek ez zituzten arerio errazak eta emaitzak emaitza,

ongi egin zieten aurre Maialen Chourraut kiroldegian urtarrilaren 27an lehiatutako hitzorduetan.

Gazteen mailako Eguzki Bodegas Ayesak eman zion hasieran egunari. Bigarren sailkatua

den Antxo Pescaderias Ferrereren aurka jokatu zen Francisco Javier *Kixki* Perezen taldea eta neurketa borrokatua aurreikusuten zuten etxekoek. Euren sumoa ez zen okerra izan; bi taldeak defentsan sendo jardun ziren eta gol aukera garbi gutxi sortu ahal izan zituzten. Jerezanoren gol bakarrak garaipena eman zion Eguzkiri.

Ostean, taldeko txikiak hartu zuten kantxa. Sailkapenean postu batzuk gorago zegoen Aloña Mendi oñatiarra izan zen infan-

Getxok neurketari itzulia eman eta garaipena erdietsi du

Gesalaga Okelan Zarautz Beltzakeko 18 urtez azpiko taldeak ezin izan dio aldeko emaitzari eutsi

Txintzarri

Errugbia izan zen berriro ere protagonista Michelin kirol gunean. Urtarrilaren 27an, Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak 18 urtez azpiko taldeak Getxo RT izan zuen aurkari etxean. Borroka handiko neurketa izan zen eta azkenean bizkaitarrek eraman zituzten puntuak.

Neurketa hasi orduko, bi taldeak tinko aurkeztu ziren defentsan. Mele, touch, ruck edo plakatze ugari izan ziren. Metroz metro zelaia irabazten ahalegintzen ziren bi taldeetako jokalaria, baina aukera gutxi izan zituzten entsegu marrara iristeko.

11. minutuan hautsi zuen berdinketa etxeko taldeak Eneko Sanchez herritarren entsegua esker. Oinatz Urbietak ez zuen hutsik egin eta gauzatzearekin 0-7 jarri ziren beltzak. Eta 28. minutuan Getxok aldea txikitu zuen entsegu bati esker. Bi taldeak saiatu arren, 7-5ekoarekin joan ziren atsedendira.

Bigarren zatian indartsu hasi ziren beltzak eta minutu bat behar izan zuten entsegu marra gainditzeko. Gauzatzea ez zen iritsi, ordea; bost puntu bakarrak gehitu zituen etxeko taldeak.

Getxok ez zuen amore emango eta minutu gutxira ederki erantzun zuen neurketako bigarren entsegua eginez.

Zelaiaren erdialdean borroka handia zegoen eta bost minutuetara tartea handitu zuen berriro etxeko taldeak entsegu bati esker.



Argazkioinaxxx. ARGAZKIJABEAXXX

Bi taldeak ederki gelditu zituzten aurkariaren erasoak. Baina hutsune bat baliatuz, berriro ere marra igaro zuen Getxok.

Minutuak igaro ahala bi taldeak garaipena emango zizkieten puntuak lortzeko borrokatzen ari ziren. Tamalez, bizkaitarren lanak fruitua eman zuten. Bi entsegu egin eta markagailuari itzulia eman zioten. Beltzek ez zuten neurketa galdutzat eman nahi eta azken minutura arte gogor jardun ziren arren, 17-25 amaitu zen partida.

Zorterik ez

Beltzen gainerako taldeek ere ez zuten aldeko emaitzarik lortzerik izan.

Iruñean izan zuen jardunaldia 16 urtez azpiko taldeak. Beltzek ezin izan zuten ezer egin Iruña Rugby Cluben aurka; 64-0 izan zen azken emaitza.

14 urtez azpiko gazteak Bera Bera RT Bren aurka neurtu zituzten indarrak. Donostiarrak hasieratik nagusi izan eta 34-5 gailendu ziren.


Kanpoan, ezinean

Lasarte-Oriako kirol elkarteko I. eta III. mailako taldeek, aldiz, kanpoan jokatu zuten Gaintxu eta Anoetaren aurka, hurrenez hurren.

Eguzki AFren taldeak ederki borrokatu arren, aurkariak gailendu ziren bi neurketetan; 6-4 eta 3-2.

Horrez gain, areto futbol eskolako haurrek topaketa izan zuten eta Samaniego-Orixe Tolosala taldeen aurka neurtu zituzten indarrak.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Mari Karmen
Kaxkarroko sorgina, Ttakuneko erregina!! Mortal guztien gainetik, hegan sua egina!! Zorionak presi! Nahiz eta zure eguna gaurkoa bakarrik ez den!



Kizkitza
Zorionak kizkolarista!! Zu bai gure saltsetako perrexila! Ondo ospatu eguna! Bi kizz haundi! Ongi etorri, berriro, Zabaletara!




Unax
ZORIONAK Unax zure zazpigarren urtebetetzean!!! ondo ondo pasa eta ederki ospatuko degu familian. jarraitu gure saltseroa izaten. Muxu haundi bat denon partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 2



Larunbata, 3




Igandea, 4




Astelehena, 5



Asteartea, 6



Asteazkena, 7



Osteguna, 8



Urte askotarako!

Zorion itzazu urteak bete, ezkondu berri edo urteurrena bete duten lagunak eta senitartekoak

Internet

- txintxarri.eus/zorionagurrrak.
- Erabiltzailearekin sartu/ Erabiltzailerik ez baduzu izena eman.
- Bidali zorion agurra formularioz.
- Zorion agurra formularioan zehaztutako datan argitaratuko da webgunean eta ostiralean paperean.

Posta elektronikoa

- Mezua bidali txintxarri@ttakun.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze eguna, urteurrenaren data edo ezkontzaren data eta testua.

OSTEGUNEKO 16:00AK ARTE JASOKO DITUGU

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 2	GIL
LARUNBATA, 3	GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 4	GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 5	ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 6	URBISTONDO
ASTEAZKENA, 7	GANDARIAS-URIBE
OSTEGUNA, 8	DE ORUE

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

K. Aizpuru Odriozola: Latxumbe Berri 11, Hernani. 943-33 60 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

SUDOKUA

9	7			4	6		8	
			8			6	4	
	4	6	9					7
	2	1		5		8	9	
		4			8	7		3
7	8			1				
		9	1	8	7			6
	1		3					2
3		7			4	1	5	

Sudoku10.net

Truke Landia



Famili artean ezagutzak partekatu nahi dituzu euskara praktitatuz?

Gurasolandiako familientzat

Izen emateak otsailak 2 arte
695 78 53 89



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago, Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldezu deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKAINITZA

Lasarte-Orian interna modura lan egiteko emakumea behar dut. Baldintza onak eskaintzen dira. Informa beharrezkoak. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

ESKARIA

Emakume euskalduna etxeko lanak edo pertsona edadetuei

laguntzen lan egiteko prest. Esperientzia dut. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Umekin esperientzia daukat. Harremanetarako telefonoa: 695 18 41 79.

Lan bila nabil interna edo ordurka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 666 31 79 60.

Lan bila nabil interna edo ordurka. Haurrak, nahiz adineko pertsonak zaindu edota etxeko lanak egingo nituzke. Erietxeetan zaintza lanak ere egingo nituzke. Harremanetarako zenbakia: 652 13 89 68.

Gaztea 24 urte, edozein lan egiteko eskaintzen naiz (zerbitzari, garbiketari...) FP-2 mekanizatua egina dut. Zubietan bizi naiz. 602 08 25 83.

Etxeko lanak egiteko edo pertsonak lagundu eta zaintzeko eskaintzen naiz. Orduka. Zubie-

tan bizi naiz. Euskaraz ez dakit. 44 urte eta eskarmentua dut. 602 08 25 83.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, bi-minia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean etxera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

AZOKA TXIKIA

Atal honetako iragarriak doan dira herritarrentzat (lau astez argitaratuko dira). Profesionalentzat, aldiz, 4 asterako kontratazioak 12 € + bez izango da prezioa.

Iragarria jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

txintxarri@ttakun.eus
943-37 14 48
688 68 35 10

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldua eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:
Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Endika Merchan, Gorka Morales, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Nora Navarro.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

Publizitatea
Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia
Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

Tel.: 943-37 14 48 / txintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 2

LASARTE-ORIA Zinema

Perfect days filma proiektatuko du Okendo Zinema Taldeak. Sarrerak 6 euro balio dute.
Kultur etxea, 20:00etan.

LASARTE-ORIA Karta jokoa

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa jokatu dute. Izen ematea, 20 euro bikoteko.
Xirimiri elkarte, 21:30etik aurrera.

LARUNBATA 3

LASARTE-ORIA Jaia

Euskal inauteriak ospatuko dituzte: **17:30ean**, kalejira, Hipodromoko zubitik.

18:15ean, herria gaitzetatik libratzeko itun ordaina eta dantzak egingo dituzte, Okendo plazan.
19:30ean, Kaxkamalo xomorroa erre eta dantza egingo dute ondoren, Okendon.
Herrian zehar, 17:30ean hasita.

IGANDEA 4

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Santa Ageda bezpera ospatuko du Zabaleta Auzolan elkarteak:
11:00etan, santa eskea.
14:00etan, auzo txotxi!, Imanol Jimenez auzokideari omenaldia eginda. Otegi sagardotegira Oaintxe in deu! txarangarekin batera joango dira, kalejiran.
Zabaleta auzoa, 11:00etan.

LASARTE-ORIA Zinema

Doraemon: Nobitaren dinosauro berria filma emango dute, haurrentzat. Sarrerak, 4 eurotan.
Kultur etxea, 17:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Erketz dantza taldeko lagunek oles egingo dute iluntzera arte, euren lokaletik abiatuta. Tabernaz taberna ibiliko dira eta erdigunean aurrena eta baserrietan gero, Kaxkarrotik gora joanda. Buenabista sagardotegian bapo afalduta amaituko dute ospakizuna.
Herrian zehar, 17:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Xumela korua eta herriko txistularien taldea santa eskean



LASARTE-ORIA Jaia

Euskal inauteriak ospatzeko egitaraua prestatu dute Ttakun Kultur Elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak.
Bihar, hilak 3, larunbatarekin, herrian zehar, 17:30etik aurrera.

ibiliko dira erdigunean barrena. Sagardotegi plazatik abiatu ostean, lehen geldialdia Ama Brigitarren komentuan egingo dute bertako mojekin abesteko, 18:00etan.
Sagardotegi plazatik abiatuta, 17:45ean.

LASARTE-ORIA Zinema

El valle de las sombras filma emango dute, helduentzat. Sarrerak 6 euro balio dutela jakinarazi dute antolatzaileek.
Manuel Lekuona Kultur Etxea, 19:30ean.

ASTEBURUKO KIROL HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Ostadar SKT - Antiguoko
Larunbata. 16:35. Michelin kirol gunean.

GORENGOEN MAILA

Allerru KE - Ostadar SKT
Igandea. 16:30. Plazeta, Lezon.

ERREGIONAL I. MAILA, IGOERA

Texas Lasartearra CF - Zarautz KE B
Larunbata. 18:30. Michelin kirol gunean.

ERREGIONAL I. MAILA, KOPA

Beti Ona CD - Ostadar SKT
Larunbata. 17:15. Beraun, Erreterian.

OHOREZKO JUBENIL MAILA

Ostadar SKT - Beti Ona CD
Igandea. 15:45. Michelin kirol gunean.

JUBENILEN I. MAILA

Ostadar SKT C - Euskalduna A. SD B
Larunbata. 14:40. Michelin kirol gunean.
Urnieta CD B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 18:00. Urnietan.

Dunboa Eguzki CD - Ostadar SKT B
Igandea. 17:30. Ugalde-Ventas, Irunen.

OHOREZKO KADETE MAILA

Kotskas M. Bihotza CD B - Ostadar SKT
Igandea. 17:15. Matigoxotegi, Donostian.

KAD. I. MAILA, GIPUZKOAKO KOPA

Ostadar SKT B - Aizkorri Goierri FT B
Larunbata. 12:55. Michelin kirol gunean.
Lazkao KE B - Texas Lasartearra CF

Larunbata. 12:00. Arizti-Handi, Lazkaon.
Usurbil FT B - Ostadar SKT (neskak)

Larunbata. 12:15. Harane, Usurbilen.

KAD. I. MAILA, UDABERRIKO KOPA

Billabona KE B - Ostadar SKT C

Larunbata. 16:00. Arratzain, Villabonan.

ARETO FUTBOLA

I. MAILA

Eguzki Arkupe Rehab. - Laskorain

Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kirol.

III. MAILA

Eguzki ISU Leihoak - Sanpedrotarra FT
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirol.

GAZTEEN MAILA

Anoeta FT - Eguzki Bod. Ayesa
Larunbata. 11:15. Abraham Olano kirol., Anoetan.

KADETE MAILA

Eguzki G. Goxua - Erain
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kirol.

BOLEIBOLA

EUSKAL LIGA

Navarvoley A - Ostadar SKT

Igandea. 11:30. Berriozarko kirol., Nafarroan.

EUSKAL LIGA, II. MAILA

Ostadar SKT - CV Gallartaren Ahotsak
Larunbata. 18:00. Maialen Chourraut kirol.

SENIOR MAILA

Ostadar SKT - Ipar Titanak
Igandea. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

JUBENIL MAILA

Ipar Titanak - Ostadar SKT
Larunbata. 16:30. Inbaurrondoko pil., Donostian.

KADETE MAILA

Ostadar SKT - Mayumi
Larunbata. 11:15. Maialen Chourraut kirol.

SASKIBALOA

I. MAILA

Añorga KKE Saski - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Benta Berri kirol., Donostian.

III. MAILA

Andraitz KE 2 - Ostadar SKT
Larunbata. 19:00. Domingo Agirre ik., Legazpian.

JUNIOR ERRENDIMENDUA

Goierri UZ Baleike - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Aldiri kirol., Urretxun.

KADETE PARTAIDETZA

Ostadar SKT - Goierri Oxykor
Larunbata. 13:00. Maialen Chourraut kirol.

PILOTA

TRINKETEIA, 2. SENIORRA

Ospele - Intza KE (Solano)

Larunbata. 16:00 (1. partida). Ametsa trink., Iruan.

UDABERRI TX., 2. SENIORRA

Azkoitia - Intza KE
Ostirala. 18:00 (3. partida). Gurea pil., Azkoitia.

ESKUZ BINAKA, 2. INFANTILA

Pagazpe - Intza KE 2
Larunbata. 11:30 (1. partida). Udaleko pil., Usurbilen.
Mundarro 1 - Intza KE 1

Larunbata. 16:00 (3. partida). Udaleko pil., Astigaragan

ESKUZ BINAKA, 3. INFANTILA

Intza KE - Atxurbide
Igandea. 11:00 (1. partida). Michelin kirol guneko pil.

IGERIKETA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo junior eta absolutu mailako igerilariak Euskal Herriko txapelketa lehiatuko dute.

Larunbata eta igandea. Amaia kirolgunea, Iruña, Nafarroan.

TEKNIFIKAZIO SARIA

Buruntzaldea IKTKo alebinak
Teknifikazio sarian izango dira lehiak.

Igandea. Azpeitiako kiroldegia.

GIMNASTIKA ERITMIKOA

AMATEUR TXAPELKETA

LOKEko gimnastek Amateur txapelketako lehen fasean parte hartuko dute.

Larunbata. Labegaraieta kirol., Bergaran.

BENJAMIN TOPAKETA

Landaberri 1 eta 2 taldeek
Benjamin topaketa izango dute.

Igandea. 11:00. Elorsoro kirol., Oiartzunen.

JUDO

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko judoek junior mailako Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.

Igandea. 10:30. Portugalete, Bizkaian.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

LOKEko judoka gazteek infantil mailako Gipuzkoako txapelketako lehen faseari egingo diote aurre.

Larunbata. 15:00. Urnietako kiroldegian.

ATLETISMOA

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko zein herriko atletek 16 eta 18 urtez azpiko Gipuzkoako txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata. Antonio Elortza bel., Donostian.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ostadar SKTko Oihana Igariziek jaurtiketa luzeen Euskadiko txapelketa jokatu dute.

Larunbata. 18:30. Durango, Bizkaian.

Herriko atletek Master mailako Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.

Igandea. Goiza. Antonio Elortza bel., Donostian.

ERRUGBIA

12 ETA 10 URTEZ AZPIKOA

Beltzak RT Eskolako gaztetxoek Topaketa izango dute.

Igandea. 09:00. Altamira, Ordizian.

XAKEA

II. MAILA

Gros H - Taula A

Larunbata. 16:00. Karmelo Bakda kirol., Donostian.

III. MAILA

Taula B - Anaitasuna Kakute B
Larunbata. 16:00. Blas de Lezoko lokalean.

LASTERKETAK

GIMNASTIKA DE ULIA

Herriko taldeetako ordezkariak Gimnastika de Uliako 5K eta 10K probetan izango dira lehiak.

Igandea. 09:30. Donostian.

MENDIA

HITZALDIA

Alex Txikon mendizalearekin solastuko dira LOTMEko kide eta lagunak.

Ostirala. 19:00. Manuel Lekuona Kultur etxean.

2022an jaioak

ERALDAKETA BATEN ALDE

La 
Salle

Berrozpe
Andoain

ZATOZ GU EZAGUTZERA! BANAKAKO BISITAK

Informazio gehiago:
www.lasalleberrozpe.eus

AURREMATRIKULAZIO DATAK



OTSAILAREN 7TIK 23RA

JOLAS TAILERRA

- Jolasak (Montessori)
- Psikomotrizitatea



OTSAILAK 06



17:15



HHko eraikinean

